

2006ko uztailaren 11an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO EKAINAREN 13KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZEN INGURUAN ONARTU BEHARREKO AKORDIOA, BIDEZKOA BADA.
- 5.- UDALHITZ-EUSKADIKO TOKIKO ERAKUNDEEN LAN HARREMANETARAKO PROTOKOLO MARKOA ONESTEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 6.- 1/2006 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 7.- EUSKERA IKASTEKO DIRULAGUTZAREN ARAUDIAREN AZTERKETA.
- 8.-HERRIKO FESTETARAKO DAUDEN ESKAERAK AZTERTZEA.
- 9.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 10.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 11.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko uztailak 6.

ALKATEA.

2.006KO UZTAILAK 11.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Antton Artola Ibaruren.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Miren Aburuza Alkorta.
Javier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko uztailaren hamaikako hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO EKAINAREN 13KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko ekainaren 13ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Ignacio Solano Irigoyen Jaunari Equipos de Panificación S.C.LTDA-ren izenean “Hornos de Panadería y Pastelería” iharduera tramitzeko proiektua eskatzea (122/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Marcelo Usabiaga Jaunari Euroestudios enpresaren izenean sondeoak egiteko baimena ematea (123/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Jon Llona Jaunari Construcciones Moyua enpresaren izenean Miravalles harrobian egiten ari den sondeoen berri jakineraztea (124/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Dionisio Otegui Goicoechea Jaunaren izenean dagoen 8062-BTT matrikuladun ibilgailuaren 71,13 €-tako kantitatea padroitik jeitxtea (125/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Aragi Bulegoak S.L. Adunako Arau Subsidiarioetako H.I.B. 3.1-ean tramitatzen ari den Hirigintz Proiektuari behin betiko onarpena ematea (126/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunari depositua lurzoru publikotik ateratzeko idatzia jakineraztea (127/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Joao Felipe Leal Sa Jaunaren izenean dagoen NA-3120-AB matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (128/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Refractarios Kelsen, S.A. enpresari fokoak legeztatze eskaturiko epearen luzapena onartzea (129/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Lizarrekak aurkezturiko “Proyecto de restitución de la capacidad de tratamiento del proceso de inertización-estabilización de la planta de Lizarreka, S.L.” aurkezturiko proiektua ez onartzea (130/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Aragi Bulegoak, S.L.-ri H.I.B. 3.1-an bi familiko bost etxebizitza egiteko baimena ematea (131/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Xabier eta M^a Rosario Tejeria Jaun/Andereei H.I.B. 3.1-an bi familiko etxebizitza bat egiteko baimena ematea (132/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Oscar Diaz Castro Jaunak Carpintería Metálica Ranedoren izenean aurkezturiko aluminiozko karpinteri tailerraren espedientea tramitean jartzea (133/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Bixente Ubillos Jauregui Jaunaren izenean dagoen SS-9745-AD ibilgailuari erroldan baja ematea, erreziboa anulatzea eta kantitatea padroitik jeixtea (134/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Jose Luis Zubelzu Beldarrain Jaunaren izenean dagoen NA-5100-AB matrikuladun ibilgailuari erroldan alta ematea, erreziboak kobratzea eta kantitatea padroitik igotzea (135/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Iñaki Ayerbe Izaguirre Jaunari EYDIMEN, 2000 S.L.-ren izenean “certificado de la instalación de protección contra incendios” dokumentua aurkezteko idatzia jakineraztea (136/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- Juan Jose Aburuza Otegi Jaunari lurra berdintzeko baimena ematea (137/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Jose Antonio Iraola Elizondo Jaunari Etxe Alai inguruan eskoilera berritzeko baimena ematea (138/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Manuel Aramburu Goenaga Jaunari Arrazubi baserriko pista berritzeko baimena ematea (139/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- Bixente Ubillos Jaunari Ozine izeneko lursailean legeztagarriak ez diren obrak egiteagatiko proposamena jakineraztea (140/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Antton Artola Ibarguren Jaunari Andretegi baserri eta inguruan zenbait obra egiteko baimena ematea (141/2006 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.

Ez dago eskaerarik.

LAUGARREN PUNTUA:

ADUNAKO H.I.B. 1.5-6 UNITATEAN ERAIKI BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZEN INGURUAN ONARTU BEHARREKO AKORDIOA, BIDEZKOA BADA.

Espedientean ikus daitekeenez,

Adunako Udalak, 2006ko urtarrilaren 24an egindako osoko bilkuran onartu zuen 13 etxebizitza –eta haiei atxikitako trasteleku eta garajeak– erosteko Udalak sustatzaile-etxegileari proposatuko zizkion pertsonak zozketaz hautatzeko prozesua arautzeko klausula administratiboen agiria; aipatu etxebizitzak Adunako Hiri Antolaketako Arauetan mugatuta dagoen 1.5-6 HIB eremuan eraikitzeak ziren eta guztiak ere, Udalak finkatutako prezioan saltzekoak.

Baina sustapen horretan 16 etxebizitza eraikitzea aurreikusten bazen ere beren eranskinekin, 13 etxebizitza bakarrik jarri ziren zozketa bidez eskuratzeko moduan. Gainerako 3 etxebizitzak Udalaren esku geratu ziren Hiri Antolaketako Arauen berrikuspenetik sor zitezkeen hirigintza helburuak betetzeko.

Hori horrela, honakoak dira zozketa bidez esleitu ez ziren eta, hortaz, Udalaren esku geratu ziren hiru loteak:

1 zk. lotea: honakoak hartzen ditu: 1-A etxebizitza eta 4.garaje eta trastetegia.

2 zk. lotea: honakoak hartzen ditu: 1-B etxebizitza eta 12.garaje eta trastetegia.

7 zk. lotea: honakoak hartzen ditu: 1-G etxebizitza eta 2.garaje eta trastetegia.

Lehiaketa egin ondoren, baldintza-agirian ezarritako betekizunak betetzen zituzten pertsonak bereizi eta, baldintza-agiri horretan ezarritako prozedurari jarraituz, 13 etxebizitzak eta beren eranskinak pertsona horien artean zozketatu ziren, notario aurrean, 2006ko maiatzaren 10ean.

Notarioak zozketaren akta egin eta bertan erasota geratu ziren bai esleipendun suertatutakoen zerrenda eta baita, behar hainbat lote ez izateagatik, etxebizitzarik egokitu gabe geratutako pertsonen itxaron zerrenda ere. Dena den, esleipendunen artean norbaitek atzera egingo balu ere, itxaron zerrenda hor dago eta hor jarraituko du, zozketaren arabera, esleipena egin zen egunetik hasi eta salerosketa eskritura egiten den arte.

Baina Udalak, erredaktatzen ari diren plangintza berria kudeatzeko, etxebizitza horiek bere izenean mantentzeko premiarik ez duenez, esleitu egin nahi ditu. Hain zuzen ere, aipatu baldintza-agirian xedatutako betekizunak izanik, udal etxebizitza tasatuak esleitzeko lehiaketan parte hartu zuten baina notarioak egindako zozketa-aktako itxaron zerrendan dauden pertsoneri esleitu nahi die.

Horrela, azalpenen atalean adierazitako hiru loteak esleitzeko prest dago Udala. Xede horrekin, itxaron zerrendan ageri diren pertsoneri deituko die, lehiaketan suertatutako hurrenkera berean, lotea hauta dezaten. Hau da, zerrenda horretako lehen hiruek izango dute esleipena jasotzeko eskubidea eta, horietakoren batek eskubide horri uko eginez gero, hurrengoei deituko zaie, notarioaren aktan ageri diren hurrenkera berean, hiru loteak esleitu arte.

Horrela bada, itxaron zerrendako eskatzaileei etxebizitza esleitzeko prozesuari buruz aipatu baldintza-agirian ezarritako prozedurarekin bat etorriz, etxebizitza horiek honako honela esleituko dira:

- Lehenik, itxaron zerrendako lehen hiru pertsoneri deituko zaie, zerrendan dagokien hurrenkera berean, lotea hauta dezaten.

- Lotearen onarpen-idatzia gehienez ere hamabost eguneko epean izenpetu beharko da. Izan ere, interesatuari esleipena jakinarazten zaionetik hasita epe horretan lotea onartu ezean, eskubide horri uko egin diola ulertuko da eta zerrendako hurrengoari deituko zaio.

- Esleipendunak 900 euroko gordailua ipini beharko du, gasaren hartunea ordaintzeko.

Adierazitako guztia aintzat harturik, gaia botutara jartzen da eta Udalbatzak, bertaratutako zazpi zinegotzien seien aldeko botuekin zera erabaki du:

- 1.- Adunako Udalak uko egitea Hiri Antolaketako Arauetan mugatuta dagoen 1.5-6 HIB eremuan eraikiko diren hiru etxebizitza tasatu eta beren eranskinen esleipenari.

- 2.- Lote horiek, 1, 2 eta 7 zenbakiko loteak, notario aurrean egindako zozketaren aktan jasotako itxaron zerrendan ageri diren eskatzaileei esleitu dakien proposatzea.

- 3.- Esleipendun izan daitezkeen eskatzaileei dei egitea, loteak hautatu eta bidezko esleipena egitearren, honako erabaki honetako azalpen-atalean adierazitako prozedurari jarraituz.

Patxi Ormaetxea zinegotziak aldiz aurka botatzen du eta bere proposamena gaia pixkat aztertzea da.

**BOSTGARREN PUNTUA:
UDALHITZ-EUSKADIKO TOKIKO ERAKUNDEEN LAN
HARREMANETARAKO PROTOKOLO MARKOA ONESTEKO PROPOSAMENA
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Ikusirik UDALHITZ osatzen duten dokumentuak onesteko proposamena. Dokumentu hauek Udal ordezkari eta ordezkari sindikalek sinatuta daude.

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez onesten dute UDALHITZ osatzen duten ondorengo dokumentuak onestea:

- 1.- Euskadiko Tokiko Erakundeen Lan Harremanetarako protokolo markoa.
- 2.- Euskadiko Toki Erakundeetako Funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena.
- 3.- Euskadiko Toki Erakundeetako lan-kontratudun langileen lan baldintzen hitzarmen kolektiboa.

**SEIGARREN PUNTUA:
1/2006 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA
BADA.**

Idazkariak 1/2006 zenbakia daraman kreditu transferentzien modalitatean 21.645,95 eurotako kantitatean kreditu aldaketa onartzea proposatzen du eta dagokion espedientearen berri ematen du. Proposamenaren laburpena ondorengoa da:

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
1.0000.601.452.00.02	Polikiroldegiko obren zuzend	8.800,00	3.907,17	4.892,83
1.0000.601.511.00.03	Etxeberri aldeko bidea konp	200.000,00	17.738,78	182.261,22
GUZTIRA		208.800,00	21.645,95	187.154,05

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.0000.211.452.00.02	Lokalen konpon eta manten	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1.0000.212.433.00.01	Argien konponketa eta mante	4.200,00	2.000,00	6.200,00
1.0000.221.121.00.03	Gasa	2.500,00	1.000,00	3.500,00
1.0000.221.533.00.11	Tresnak eta erremientak	1.200,00	500,00	1.700,00
1.0000.226.121.00.04	Juirdiko aholkularitza	22.000,00	2.000,00	24.000,00
1.0000.421.721.00.01	Mank eta Konts: Tolos Garat	5.600,00	1.130,00	6.730,00
1.0000.601.432.00.01	Herrigun peat obren zuz	5.000,00	3.796,57	8.796,57
1.0000.626.121.00.01	Inpresora baten erosketa	800,00	409,88	1.209,88
1.0000.642.432.00.02	Arau Subsidiarioak	20.000,00	8.300,00	28.300,00
1.0000.721.420.00.01	Haurreskolako partaidetza	24.000,00	1.509,50	25.509,50
GUZTIRA		86.300,00	21.645,95	107.945,95

Kreditu aldaketa hau aztertu ondoren, Udaltzarak, aho batez onartzen du.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
EUSKERA IKASTEKO DIRULAGUTZAREN ARAUDIAREN AZTERKETA.

Oraingoz mahai gainean geratzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA:

HERRIKO FESTETARAKO DAUDEN ESKAERAK AZTERTZEA.

1.- Festa Batzordeak aurreko urteetan legez jaietan Herriko Plazan dagoen lokala erabiltzeko eta plazan kantina bat jartzeko aurkezturiko eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, eskaera onartzea erabaki du.

2.- Festa Batzordeak Serotegi etxearen inguruan eszenatokia jartzeko aurkezturiko eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, eskaera onartzea erabaki du.

3.- Festa Batzordeak festak antolatzeko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, hamaika mila (11.000,00.-€) eurotako dirulaguntza ematea erabaki du.

BEDERATZIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.-Tolosaldeako Mankomunitateak Udalak 2.006.urtean egin beharreko aurrekontuaren %50eko ekarpenaren inguruan aurkezturiko 5.785,76 €-tako idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ekarpenaren zati hau ordaintzea erabaki du.

2.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak 2.006ko 2.hiruhilabeteko gastuei aurre egiteko aurkezturiko idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, idatzi hau onartzea eta Udalari dagokion 6.959,59 €-tako kuota ordaintzea erabaki du.

3.- Caldereria Aburuza, S.L.-k Adunako frontoiko barandan egindako lanengatik aurkezturiko 3.074,48 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

4.- IKAUR-ek Adunako Arau Subsidiarioen Berrazterpenaren espedientean barruan aurkezturiko 49.184,00 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura onartzea erabaki du.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau erabaki da:

1.- Alkateak informatzen du Arau Subsidiarioen Berrazterpeneko Kamio izeneko 16.eremuko lurjabearekin hitzarmen bat adostekotan dela. Hitzarmen honek nahiz eta detaile gehiago jaso, bere edukin nagusiaren arabera, lurjabeak Udalari prezio tasatuko 20 etxebizitza egiteko urbanizatutako lurzatia emango dio. Eta aldiz, Udalak beronen ordeez, egingo dituen 20 etxebizitzetatik 2 etxebizitza eta 96.000 € emango dizkio. Eremuko

urbanizazio lan guztiak, errepidea zabaltzea barne, Kamioko lurjabearen gain joango lirateke.

Hitzarmena bere osotasunean aztertu ondoren, aho batez zera erabaki da:

1.- Hitzarmena onartzea.

2.- Bai kontratua eta bai eskriturak sinatzeko boterea Alkateari ematea.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.